

UPV/EHU

**GARAPENERAKO  
LANKIDETZA BULEGOA**

**[GARAPENERAKO  
LANKIDETZA UPV/EHU<sub>n</sub>]**

**0** DIAGNOSTIKOA



# AURKIBIDE NAGUSIA

<b>1. AURKEZPENA</b>	<b>5</b>
<b>2. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAREN HELBURUAK</b>	<b>6</b>
<b>3. UPV/EHUren GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO EGITURAK</b>	<b>7</b>
3.1. Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua	7
3.2. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa	8
3.3. Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerari buruzko Ikasketen Institutua (Hegoa)	11
3.4. Garapenerako lankidetzaren arloko unibertsitate elkarteak	12
3.5. Ikastegiaren eta ikasleen 0,7 Fondoa	13
<b>4. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO UPV/EHUren JARDUERAK</b>	<b>15</b>
4.1. Unibertsitate prestakuntza eta irakaskuntza ekintzak	15
4.1.1. Graduondokoak	15
4.1.2. Practicum eta karrera amaierako proiektuak	18
4.1.3. Graduon irakasgaiak	24
4.1.4. Garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak	26
4.2. Ikerkuntzaren arloko ekintzak	30
4.2.1. Doktorego tesiak	30
4.2.2. Ikerketa proiektuak	35
4.3. Garapenerako lankidetzaren arloko proiektu eta ekintzak unibertsitatean	38
4.4. Zabalitze eta sentsibilizazio ekintzak	40



## 1.- AURKEZPENA

Egungo mundu globalizatu honetan, gizarte justuagoa eraikitzeko ahaleginak ezin du herrialde baten mugetan amaitu, eta inork ezin ditu munduko desberdintasun sozialak, ekonomikoak, hezkuntzari dagozkionak, osasun arlokoak edo politikoak besterik gabe baztertu. Horregatik, unibertsitate sistemak zeregin garrantzitsua hartu behar du bere gain giza garapenerako prozesuetan, eta lankidetzaren eta hirugarren sektoreko lanaren bidez gizarte justuagoa eta parte-hartzaileagoa eraikitzeko estrategia berriak aztertu eta martxan jarri behar ditu.

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatzen duen Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legeak unibertsitateak balio igorle gisa duen zeregina aipatzen du lehen aldiz bere hitzaurrean, eta unibertsitateak hainbat baliori arreta berezia eskaini behar diela gehitzen du: elkarrizketa, bakea eta herrien arteko lankidetzak. Era berean, 92. artikulua, nazioarteko lankidetzari eta elkartasunari buruzkoak, diotenaren arabera, unibertsitateek unibertsitateko kideak nazioarteko lankidetzako eta elkartasunerako jardueretan eta proiektuetan parte hartzera bultzatuko dituzte; eta bakearen kultura, garapen iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetua aurrerapen solidarioarako funtsezko elementu gisa sustatuko duten jarduerak eta ekimenak ahalbidetuko dituzte.

Bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek Lehen Tituluan (UPV/EHUren izaerari eta helburuei buruzkoan) diotenaren arabera, Unibertsitateak nazioarteko trukea eta lankidetzak ahalbidetuko ditu, garapenerako lankidetzari arreta berezia eskainiz. Garapenerako unibertsitate lankidetzak giza aberastasuna eta aberastasun akademikoa ematen die bertan parte hartzen duten pertsonari eta pertsona horien unibertsitateei.

Horrez gain, UPV/EHUK, 2007ko otsailaren 8ko Gobernu Kontseiluan, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Biltzarren (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitate Batzordeak (CEURI) onartutako garapenerako lankidetzaren arloko jokabide kodeari atxikitzea onartu zuen. Atxikimendu horrek honako proposamen hauek barne hartzen ditu, besteak beste:

- 1) Garapenerako lankidetzak unibertsitate erakundearen barneko funtzio sozializat hartzea.
- 2) Balio solidario eta unibertsalistetan oinarritutako prestakuntza sustatzea, gizarteari eragiten dieten arazoei buruz eztabaida dezaten, zuzentasuna, iraunkortasuna eta giza eskubideekiko errespetua abiapuntutzat hartuta.
- 3) Munduko leku batzuetan eta besteetan gizakien garapena baldintzatzen duen problematikaren ezagutza, ikerketa eta hedapena sustatzea, eta unibertsitateko kideek problematika hori hobeto ezagut dezaten ahalbidetzea.
- 4) Garapenerako lankidetzarako giza baliabide espezializatuak ahalbidetzea, eta, beste eragile instituzional eta sozial batzuekin batera lankidetzak proiektuak eta programak martxan jartzea.
- 5) Unibertsitateko kideen artean, bereziki ikasleen artean, elkartasun aktiboa eta borondatezko lana sustatzea. Horretarako, esparru espezifiko batean boluntario gisa aritzeko aukera eman beharko diete, Unibertsitatearen beraren programen bidez edo beste erakunde batzuen bidez.

2010eko maiatzaren 17an UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua eratzeko bilkura egin zuten. Bertan, argi gelditu zen UPV/EHUK datozen urteetarako garapenerako lankidetzarako estrategia baten beharra duela eta, horregatik, egokitzat jo zen 0 diagnostiko bat egitea, UPV/EHUren garapenerako lankidetzaren egungo egoera ezagutzeko.

## **2.- UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAREN HELBURUAK**

Diagnostiko honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, Euskal Herriko Unibertsitateak gaur egun dituen lankidetzarako egiturak ezagutzea, hau da, garapenerako unibertsitate lankidetzaren esparruan egiten diren jarduerak gauzatzen dituzten instituzioak, erakundeak, taldeak eta bestelako eragileak.

Bigarren helburu nagusia gure unibertsitateko kideek (irakasle eta ikertzaileek, administrazio eta zerbitzu eta langileek eta ikasleek) gauzatzen dituzten lankidetzaren ekimenak eta jarduerak ezagutzea da. Jarduera horiek hiru talde handitan bildu ditugu.

Alde batetik, unibertsitate prestakuntzaren eta irakaskuntzaren arloko jarduerak: graduondoko mailak (doktoregoak eta maisutzak), graduko irakaskuntza, practicumak eta karrera amaierako proiektuak, eta nazioarteko garapeneraren eta lankidetzaren problematika handiari buruzko beste ikastaro monografiko batzuk.

Beste alde batetik, nazioarteko garapen eta lankidetzaren arazoei lotutako ikerketa arloko ekintza guztiak. Ekimen horiek gaiarekin lotura duten doktorego tesien eta sailek, ikerketa institutuek edo ikerketa taldeek egiten dituzten ikerketa proiektuen bidez gauzatzen dira.

Azkenik, gure unibertsitatean hedapeneraren eta sentsibilizazioaren arloko hainbat ekimen egiten dira. Ekimen horiek Lankidetzaren Bulegoak eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten instituzioek, erakundeek eta unibertsitate taldeek antolatzen dituzte.

Hemen aurkeztutako diagnostikoaren helburua ez da txosten amaitu bat izatea, izan ere, seguruenik ez ditu UPV/EHU egindako lankidetzaren arloko jarduerak guztiak barne hartuko. Gure unibertsitateko lankidetzaren egiturei eta tipologiei buruzko lehen diagnostiko bat da, eta urte hauetan guztietan gure unibertsitateak balio solidarioekiko duen konpromisoaren isla diren jarduerak gauzatzen jardun duten pertsonen, taldeen eta instituzioen ekarpenekin eta iradokizunekin osatu beharko da.

Diagnostikoa egiteko, egokitzat jo dugu 2007an Espainiako unibertsitateen garapenerako lankidetzarako jarduerak ezagutzeko helburuarekin egindako *La Cooperación al Desarrollo en las Universidades Españolas*<sup>1</sup> azterlanean erabilitako egitura bera erabiltzea.

---

<sup>1</sup> Unceta, K. (2007) *La Cooperación al Desarrollo en las Universidades Españolas*. AECID/MAEC. Madril.

### **3.- UPV/EHUren GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO EGITURAK**

UPV/EHUK honako egitura hauen bidez gauzatzen ditu garapenerako lankidetzaren esparruko jarduerak:

- a) Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua
- b) Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa
- c) Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerari buruzko Ikasketen Institutua (Hegoa)
- d) Garapenerako lankidetzarako unibertsitate elkarteak
- e) Ikastegiaren eta ikasleen % 0,7 Fondoa

#### **3.1.- UPV/EHUren GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KONTSEILUA**

UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak, lankidetzarako garapeneraren esparruko unibertsitateko kideen lan, kontsulta eta parte-hartze organo gisa, 2009ko uztailaren 22an egindako bilkuran sortu zen. Kontseilu hori garapenerako lankidetzaren finantzatzaren duten edo arlo horretan lan egiten duten administrazio eta zerbitzuak langileek, irakasleek eta ikasleek osatzen dute.

UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluak honako eskumen hauek ditu:

- 1) Unibertsitateen garapenerako lankidetzaren arloko jokabide kodeak aplikatzearen alde egitea, horiek praktikan jartzen lagunduz, horiek hobetzeko proposamenak eginez eta horien garapenerako irizpideak proposatuz.
- 2) UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren arloan martxan jarriko dituen planen, programen eta jarduketaren proposamenak egitea.
- 3) Unibertsitateen garapenerako lankidetzaren arloko jokabide kodea aplikatzerakoan ezarritako helburuen betetze mailaren eta gauzatutako ekintzen segimendua eta ebaluazioa egitea, baita kode horri jarraituz martxan jarritako unibertsitate politikena ere.
- 4) Nazioarteko elkartasunaren arloko eztabaida kritikoa sustatzea.
- 5) Garapenerako lankidetzarako ekintzak sustatzea gizarteko beste instituzio eta eragile batzuekin batera.
- 6) Unibertsitateko kideek garapenerako lankidetzaren arloan egindako jarduketaren berri ematea.
- 7) Garapenerako unibertsitate lankidetzaren arloan UPV/EHUko gobernu, ordezkariak eta aholkularitza organoek dagokien beste edozein jarduerak.

- 8) Batzordeak bere eskumenei dagozkien erabaki guztien edo bere ekimenaren testuinguruan gauzatutako jarduera guztien berri izango du.

2010eko maiatzaren 17an UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren lehen bilkura egin zen, behar bezala osatuta. Bertan, bilkuren agenda eta honako alderdi hauek ezartzen dituen barneko funtzionamendu araudia zehaztu zituzten:

- a) Bilkurak irekiak izango dira unibertsitateko kide guztientzat. Horrez gain, landu beharreko gaiaren arloan garrantzia duten pertsonak gonbidatu ahal izango dituzte.
- b) Unibertsitateko kideek AZPko langileen, irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen iragarki taularen bidez izango dute bilkuretarako deialdien berri.
- c) Kontseiluaren bilkurak grabatuta geldituko dira; grabazioak ez dira argitaratuko eta Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzak zainduko ditu.
- d) Gai zerrenda Kontseiluko presidentek proposatuko du, Kontseiluarekin kontsultatu ondoren. Kontseilutik kanpoko norbaitek gai zerrendarako punturen bat proposatu nahi izanez gero, Kontseiluko kideren baten bitartez egin beharko du. Bilkura bakoitzaren amaieran, Kontseiluak hurrengo bilkurako gaien berri emango du.

### 3.2.- UPV/EHUren GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA

Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzari atxikitako Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa UPV/EHUk garapenerako unibertsitate lankidetzaren sustatzeko asmoz sortutako zerbitzua da. Garapenerako unibertsitate lankidetzaren unibertsitateko kide guztiek lankidetzaren aritzen diren gizartearen ahalmenak, bereziki unibertsitate eta hezkuntza sektoreenak, indartzeko egindako ahalegin solidario gisa ulertu behar dugu. Zehatzago, Bulegoaren asmoa unibertsitateko hainbat sektorek garapenerako lankidetzaren arloan egiten dituzten ahaleginak koordinatzea, babestea eta bideratzea da.

Urte hauetan guztietan, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak hainbat jarduera gauzatu ditu garapenerako unibertsitate lankidetzaren arloan, besteak beste:

**a).- Beste erakunde eta instituzio batzuekin batera lankidetzaren aritzeko hitzarmenak sustatzea.**

Azken urte hauetan, lankidetzaren hitzarmen ugari sinatu ditugu hainbat unibertsitatearekin. Madrilgo Unibertsitate Autonomoarekin egindako hitzarmenaren bidez, Nazio Batuen UNITEs beken deialdian parte hartu dugu.

Era berean, hitzarmen bat sinatu dugu Sula ibarreko Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoarekin (UNAH-SV), bi unibertsitateetako Odontologiako gradu eta graduondoko irakasleen eta ikasleen mugikortasuna ahalbidetzeko.

Azkenik, beste hitzarmen bat sinatu dugu Granmako Unibertsitatearekin (Kuba), UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko eta Granmako Nekazaritza Zientzien Fakultateko irakasleen mugikortasuna ahalbidetzeko asmoz.



**b).- Garapenerako unibertsitate lankidetzaren arloko proiektuak eta ekintzak gauzatzeko laguntzen deialdia.**

Urteroko deialdi honen helburua UPV/EHUko unibertsitateko kideek garapenerako unibertsitate lankidetzaren arloko proiektuetan eta ekintzetan duten parte-hartzea indartzea eta sustatzea da. Proiektu horiek giza garapen txikiagoko herrialdeetako biztanleen bizi baldintzak eta prestakuntza hobetzen lagunduko dute. Horretarako, UPV/EHUK laguntza ekonomikoak ematen ditu, bertako unibertsitateko kideek gauzatutako lankidetzarako proiektuak edo ekintzak guztiz edo partzialki finantzatzeko: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenari aplikatutako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateen indartze instituzionala; eta garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza.

Orain arte, 3 deialdi egin dira (2007/08, 2008/09, 2009/10), eta, horietan, 9 proiektuentzako eta 6 ekintzentzako laguntzak adjudikatu ditugu. Proiektu eta ekintza horiek Latinoamerikako eta Afrikako hainbat herrialdetan eta eskualdetan gauzatu dituzte<sup>2</sup>.

**c).- Lankidetzaren proiektuak egiteko aholkularitza teknikoak irakasle eta ikertzaileentzako, AZPko langileentzako eta ikasle erakundeentzako.**

Lankidetzaren Bulegoak, batetik, proiektuak egiteko eta horien segimendua egiteko eta, bestetik, kanpoko funtsak bilatzeko aholkularitza teknikoak eskaintzen du. Era berean, nazioarteko garapen arlo eta programa askotan lankidetzaren ekintzetan lan egiteko prest dauden UPV/EHUren giza baliabide espezializatuen datu-base bat jartzen du eskuragarri.

Datu-base honek espezialista aurkitzea ahalbidetzen du, bilaketarako bost aukera erabilita: beren unibertsitate ikastegia, garapenerako lankidetzaren arloan duten esperientzia, proiektu jakin batean parte hartzeari eskain diezaioketen denbora, beren lankidetzarekin gauzatu nahi den proiektu mota eta gauzatu behar izango duten lankidetzaren mota.

**d).- Hedapen eta sentsibilizazio jarduerak.**

UPV/EHUK Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak hainbat eskola eta fakultatetan gauzatzen dituen hedapen eta sentsibilizazio jarduerak sustatzen ditu. Horien artean, garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak<sup>3</sup> nabarmendu behar ditugu. Ikastaro horiek hainbat unibertsitate ikastegiren, UPV/EHUren Hegoa Institutuaren eta euskal GGKEen laguntzarekin antolatu ditugu, eta UPV/EHUren hiru campusetan ematen dira.

Era berean, bereziki aipatu behar da Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen (UPV/EHU) artean martxan

---

<sup>2</sup> Ikusi 4.3 atala

<sup>3</sup> Ikusi 4.4 atala

jarritako eta Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak finantzatutako *"Hegoaldeko ikuspegiak"* kazetaritza solidarioko lehiaketa.

Azkenik, Lankidetzaren Bulegoak bere babesa ematen die unibertsitateko boluntarioei eta sentsibilizazioaren, nazioarteko elkartasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko elkarteei.

**e).- Sareko lana. G9an aktiboki parte hartzea.**

*G9 taldeko unibertsitateen eta Afrikako 4 unibertsitateen arteko lankidetzaren programa.* Bulegoak Espainiako 9 unibertsitateen eta Kenyako, Ugandako, Tanzaniako eta Etiopiako 4 unibertsitate publikoren arteko lankidetzaren programa baten identifikatze eta gauzatze prozesua zuzendu du. Proiektu horren helburua Erizaintza Eskolaren irakaskuntza eta ikerketa gaitasunak sendotzea eta osasuna eta sexu eta ugalketa eskubideak sustatzea da, herrialde horietako genero berdintasuna abiapuntutzat hartuta. Lanak 5 eguneko mintegi bat koordinatzea barne hartu du, Kampalan (Uganda). Bertan, aipatutako unibertsitateetako 38 irakasleek hartu dute parte eta lankidetzaren programaren edukiak adostu dituzte.

*Osasunaren eta sexu eta ugalketa eskubideen gaiak, genero ikuspegitik, unibertsitate prestakuntza arautuan sartzeko jardunbide egokiei buruzko mintegi aurreratua; Hawassa, Etiopia.* 2010/2011 ikasturtean, UPV/EHU instituzio gisa parte hartzen ari da G9 taldeak AECIDen deialdi ireki eta iraunkorrera aurkeztutako proiektu honetan. Proiektu honekin, Sahara azpiko Afrikako biztanleen osasuna eta sexu eta ugalketa eskubideak sustatu nahi ditugu, betiere, genero ikuspegitik. Proiektuaren helburua emakumeek osasun zerbitzuak eskuratzeko jasaten duten bazterkeria gainditzea eta botereen banaketa aldatzea da, emakumeen berdintasuna eta herritartasun osoa lortzeko. Zehazki, honako hau lortu nahi dugu:

- Afrikako 4 unibertsitateen erizaintza, medikuntza eta/edo genero fakultateen, sailen edo unitateen irakaskuntza gaitasunak sendotzea, osasuna eta sexu eta ugalketa eskubideak, genero ikuspegitik, susta ditzaten beren gizarteetan.
- Espainiako unibertsitateetako ikasleen garapenerako eta gizarte sentsibilizaziorako hezkuntza sustatzea, genero ikuspegitik eta osasunaren arloko genero desberdintasuna abiapuntutzat hartuta.

*"Yo, sí puedo"* unibertsitate sarea. Lankidetzaren Bulegoak Espainiako eta Nikaraguako unibertsitateek osatutako sare honetan parte hartzen du. Sarearen funtsezko zeregina erakundeen indartzean oinarritutako hezkuntza proiektuak gauzatzea da.

**f).- Garapenerako lankidetzaren arloko unibertsitate praktikak eta karrera amaierako proiektuak egiteko laguntzen deialdia.**

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartutako garapenerako lankidetzaren proiektuetako praktika programari esker, ikasleek nahitaezko praktikak lankidetzaren erakundeek garapen bidean dauden herrialdeetan gauzatzen dituzten proiektuetan egin ditzakete. Modu horretan, esperientzia hori beren prestakuntza akademikoaren eta praktikoaren zati izango da.

2003/04 ikasturtean programa hau martxan jarri izanak Unibertsitateak munduko desberdintasunekiko kontziente eta gizarteen aurrerapenei eragiten dieten arazoei buruz eztabaidatzeko gai izango diren profesionalak prestatzeko helburuari erantzuten dio. Era berean, UPV/EHUK mota horretako praktiken eskaintza instituzionalizatzen du eta horien iraunkortasuna eta hezkuntzan izango duten eragina bermatzen du. Programak honako oinarri hauek ditu:

- a) Garapen proiektuetan egindako praktikek hezkuntzan duten eragin handia hartzen du aintzat: ikasleek beren prestakuntza akademikoa eta profesionala hobetzen dute, izan ere, ikasteko eta gaitasun berriak garatzeko aukerak eskaintzen dizkieten esperientzietan hartzen dute parte.
- b) Beharrezkoa da ikasleek garapenerako lankidetzarako motibazio handia izatea; hau da, guk baino zailtasun gehiago eta baliabide gutxiago dituzten gizarteei laguntzeko gogoak praktika interesgarriak edo zirraragarriak egitea baino garrantzitsuagoa izan behar du.
- c) UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzaren erakundeen arteko lankidetzaren sustatzen du, ikasleek praktikak arrakastaz gauzatzen dituztela eta sensibilizazio jarduerak unibertsitateko kideengan eragina dutela bermatzeko.

### **3.3.- NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA (HEGOA, UPV/EHU)**

Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenera Buruzko Ikasketarako Unibertsitate Institutua da. Eusko Jaurlaritzaren 1999ko urriaren 19ko dekreto bidez sortu zen, 1997ko maiatzaren 10eko dekretuaren ondorio gisa. Hegoa elkarteak institutua sortzeko sinatutako hitzarmenaren ondorio gisa. Hegoa elkarteak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat da; elkartearen erregistroan inskribatuta dago 1987ko uztailaren 6tik, eta Eusko Jaurlaritzaren 2003ko uztailaren 29ko 193/2003 Dekretuaren bidez onura publikoko elkarte izendatuta dago.

Hegoa Institutuak, unibertsitate institutua eta elkarte zibila den heinean, giza garapena sustatzen lan egiten du, eta bere helburu nagusia giza garapenerako eta lankidetzaren eraldatzaileerako esparru teorikoak, prozesuak eta estrategia alternatiboak osatzea, proposatzea, nabarmentzea eta aplikatzea da, betiere, pentsamendu kritikoa erabilita.

Unibertsitate prestakuntza eta irakaskuntza da Hegoa Institutuaren helburu nagusienetakoa, eta hiru mailatan gauzatzen du: lehenik, beren doktorego tesiak nazioarteko garapenerarekin eta lankidetzarekin erlazionaturako gairen bati buruz egin nahi dituzten ikertzaileen prestakuntzara bideratutako doktorego programen bidez. Bigarren lekuan, graduondoko mailatan. Horien helburua garapenerako lankidetzaren arloan, bai garapenerako gobernu kanpoko erakundeetan bai instituzio publikoetan, lan egiten duten edo etorkizunean lan egin nahi duten profesionalak prestatzea eta espezializatzea da. Azkenik, ikastaro monografikoen eskaintzaren bidez, lizentziatuetako ikasleei nazioarteko garapeneraren eta lankidetzaren arloko hainbat alderdiri buruzko informazioa eman nahi diegu.

Hegoaren Dokumentazio Zentroa 1987an sortu zen, eta gaur egun liburutegi fisikoa eta digitala ditu. Bertan, 18.000 liburu, erreferentzia obra, aldizkarietako artikulua eta dokumentu baino gehiago daude erregistratuta, 8 gai nagusitan banatuta:

ekonomia, garapenerako lankidetzak, politika eta nazioarteko harremanak, emakumeak eta garapena, geografia, ekologia eta ingurumena, giza eskubideak, kultura eta gizarteak, eta informazioa eta dokumentazioa. Hegoak 1988tik bildutako ondare guztia dago bertan, eta gaur egunera arteko garapenari eta lankidetzari buruzko eztabaida nagusiak biltzen ditu. Liburutegi horri esker, Institutuko irakasleek eta ikertzaileek, gizarteko eragileek eta nahi izan duen pertsona orok Euskal Herriko garapenerako lankidetzarako lanean eta politiketan aurrera egin ahal izan dute.

Hegoa Institutuak bere ikerketa jarduera UPV/EHUK eta garapenerako lankidetzaren arloko agentziek (Eusko Jaurlaritzak, AEDIC, aldundiak, etab.) finantzaturako ikerketa taldeetan eta proiektutan gauzatzen du. Proiektu horien ikerketa ildoak honako gai hauekin zerikusia izaten dute: tokiko giza garapena, giza segurtasuna, generoa eta garapena, garapenerako lankidetzaren arloko politikak, nazioz haraindiko politikak, etab. Modu horretan, Hegoa Institutuak banakako ikerketak eta taldeko jarduerak (ikerketa proiektuak, mintegiak, beste institutu eta ikerketa sare batzuekiko lankidetzak, eta hainbat institutuekin batera egindako lanak) antolatu eta horiei koherentzia ematea du helburu. Ikerketa jardueren barnean, hainbat unibertsitatek eta garapenerako lankidetzaren arloko agentziak finantzaturako ikerketa proiektuak gauzatzen ari da.

Aholkularitzaren esparruko jarduera garapenerako lankidetzak programak dituzten erakunde publikoek eta pribatuek aholkularitza eskaintzean datza (Foru Aldundien Plan Zuzentzailea, BBK). Zehazki, honako arlo hauek eskaintzen du aholkularitza: Latinoamerikako eta Afrikako lankidetzak proiektuak kudeatzeko trebakuntza eta aholkularitza zerbitzuak, eta tokiko garapen ekonomikorako eta lankidetzarako proiektuen kudeaketarako trebakuntza.

Amaitzeko, sentsibilizazio arloaren helburua garapenarekin eta lankidetzarekin erlazioatutako gaiak gizartean hedatzea da, kontzientzia kritikoa sorraraziz eta gizarte mobilizazioa sustatuz.

### **3.4.- GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO UNIBERTSITATE ELKARTEAK**

Unibertsitateak, irakasteko, ikertzeko eta ikasleei prestakuntza integrala emateko konpromisoa eta erantzukizuna duen gizarteko eragile gisa, gizabidea, elkartasuna, justizia, tolerantzia eta errespetua oinarritzat dituzten balioak igortzeko eta herritar aktiboak, arduratsuak eta konprometituak heziko, biziko eta elkarerraginean arituko diren inguruneak sortzeko apustua egin du. Ildo horretatik, borondatezko lana unibertsitatea gizartera gerturatzeko tresna, unibertsitatearen ezaugarria eta goi mailako hezkuntzaren beste balio bat bihurtu da. Lan horrek munduko bidegabekeriei eta desberdintasunei buruzko pentsamendu kritikoa garatzeko eta gizarteko talde, errealitate eta testuinguru heterogeneoak eta diziplina anitzekoak sortzeko abiapuntua izan behar du.

**Mugarik Gabeko Arkitektoak (ASF)**. Egoitza Arkitektura Goi Eskola Teknikoan du eta bizigarritasuna hobetzeko lan egiten du Latinoamerikako eta Afrikako hainbat erakunderekin batera (oinarri erakundeak, eta erakunde publikoak, profesionalak edo erlijiozkoak). Horrez gain, tokiko lankidetzan lan egiten du Espainiako geografiako puntu zehatz batzuetan, gertuenekoen bizigarritasun arazoak konpontzen ari diren taldeei eta elkartei lagunduz ([asf.pv@euskalnet.net](mailto:asf.pv@euskalnet.net)).

**Bionatur**. Biologia ikasleen elkarte bat da, eta hainbat esparrutako antolamenduak, hedakuntzak eta kudeaketak arduratzen da, besteak beste: zientzia eta teknologia, lankidetzak eta garapen iraunkorra, akademiaz kanpoko hezkuntza eta prestakuntza,

ikasketa bidaia solidarioak, biodibertsitatearen zaintza eta kudeaketa ([bionatur@hotmail.es](mailto:bionatur@hotmail.es)).

**Ekilore Munduan.** Duela zazpi urte Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleek martxan jarritako prozesu baten ondorioz sortu zen GGKE hau. Ikasle horiek nahitaezko praktikak garapen bidean zeuden lekuetan, zehazki Ekuadorko Pastaza probintziako kultura arteko hezkuntza elebiduneko zentroetan, egitea proposatu zuen. Modu horretan, ikasleek mundu ikuskera indigena barne hartzen duen hezkuntza sistema sendotzen laguntzen dute (<http://ekilore.elkarteak.net>).

**UPV/EHUren % 0,7 Elkartasun Fondoa.** UPV/EHUko langileek sortu zuten 1996an, hileko soldataren % 0,7 emateko konpromisoa hartuta, "pobrezia eta marjinazio egoerekiko UPV/EHUko kideen elkartasuna sustatzeko". Gaur egun, 493 bazkide ditu. 1997. eta 2010. urteen artean, GGKEek kudeatutako 80 proiektu inguru finantzatu ditu, bereziki, alfabetatze arloan eta/edo lehen hezkuntzaren arloan. 2002. urtean, Eusko Jaurlaritzak onura publikoko elkarte izendatu zuen (<http://www.ehu.es/rowupv07/fondoupv07.htm>).

**Mugarik Gabeko Ingeniaritza.** Lantalde honen oinarriak Unibertsitateak, gizarte eragile aktiboa den heinean, gure gizarteko egungo erronken erantzukizuna bere gain hartu behar duela, eztabaida sustatu behar duela eta espiritu eraldatzailea duten herritarrek prestatu behar dituela dira. Gure ustez, nahitaezkoa da irakaskuntza teknikoetan alderdi gizatiarrak, sozialak eta kulturalak ere sartzea, egungo gizarte globalizatuak dakartzan arazoei eta desberdintasun egoerei aurre egiteko gai izango diren profesionalak trebatzera bideratutakoak (<http://euskadi.isf.es/index.html>).

**Sarriko Solidario.** Ekonomiaren ikuspegi kritikoa eta hainbat gizarte kezka dituzten pertsonen osatutako irabazi asmorik gabeko ikasleen erakunde bat da. Bertako kideak ez gaude ados egungo garapen eredu neoliberalarekin, eta giza garapen iraunkorrean oinarritutako sistema ekonomiko baten alde lan egiten dugu. Gure ideiak jakinarazteko eta gainerako ikasleak sentsibilizatzeko, hainbat jarduera gauzatzen ditugu: ekonomia kritikoa buruzko jardunaldiak, zineforuma, tailerrak, etab. Estatu mailako gizarte sare baten barnean gaude ("Estudiantes por una economía crítica"). Sare horri esker, beste zenbait unibertsitatekiko loturak ditugu, esaterako, Malaga, Bartzelona, Madril, etab. (<http://www.ehu.es/sarrikosolidario>)

### 3.5.- IKASTEGIEN ETA IKASLEEN % 0,7 FONDOA

UPV/EHUK ikasleek urtero, matrikulak egitean, beren borondatez ematen dituzten kopuruak biltzen ditu, eta ikasleek ematen duten diruaren kopuru berdina gehitzen du.

Ikasleen % 0,7 Fondoa Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak urtero unibertsitateko ikastegietan sustatzen dituen lankidetzaren jarduerak finantzatzeko erabiltzen da: garapenerako lankidetzaren arloko unibertsitate praktikak eta karrera amaierako proiektuak, garapenerako unibertsitate lankidetzaren arloko proiektuak eta ekintzak, garapenerako eta lankidetzaren buruzko ikastaroak campus eta ikastegi guztietan, unibertsitate elkartasunari buruzko jardunaldiak, sentsibilizazio jarduerak, erakusketak, jardunaldiak, mintegiak, etab.

Bestalde, UPV/EHUko gero eta ikastegi gehiagok (Letren Fakultatea, FHZF, Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola, Arte Ederren Fakultatea, etab.)

bideratzen dute beren diru-sarreraren % 0,7 garapenerako unibertsitate lankidetzara. Oraingoan, beraiek kudeatzen dituzte zuzenean garapenerako lankidetzara bideratutako baliabideak.

**1. TAULA. UPV/EHuko IKASLEEK EMANDAKO DIRU-KOPURUEN BILAKAERA (2006-2010)**

	2006/07		2007/08		2008/09		2009/10	
	Ikasleak	Zenbatekoa	Ikasleak	Zenbatekoa	Ikasleak	Zenbatekoa	Ikasleak	Zenbatekoa
<b>Arabako Campusa</b>								
Ek. Zien. Ord.	8	24,78	24	101,79	22	116,52	14	68,46
Farmazia F.	28	197,47	156	1.065,71	116	852,79	114	822,79
Letren F.	57	246,60	190	980,64	174	1.005,05	167	900,4
Jarduera Fisikoaren eta	11	67,33	46	288,55	41	308,71	33	255,3
Enpresa Ikasketen UE	9	25,81	79	335,58	44	189,87	29	141,71
Irakasleen UE	21	93,85	154	803,27	100	540,86	100	603,12
Gizarte Langintzako UE	15	62,22	54	263,57	56	292,81	50	277,75
Ingeniaritzako UE	31	146,01	150	1.049,28	116	798,84	85	581,28
<b>Guztira</b>	<b>185</b>	<b>897,28 €</b>	<b>879</b>	<b>5.065,73 €</b>	<b>688</b>	<b>4.230,31 €</b>	<b>592</b>	<b>3.651</b>
<b>Gipuzkoako Campusa</b>								
Kimika Zientzien F.	5	33,21	26	177,34	19	124,86	16	112,49
Ek. Zien. Ord.	2	11,44	21	99,78	26	164,18	20	123,38
Zuzenbide F.	12	46,18	31	139,64	39	200,95	39	258,66
Informatika F.	27	101,87	73	379,11	74	411,14	44	243,01
FHZF	47	166,36	190	877,78	144	727,54	151	762,78
Psikologia F.	27	141,06	106	529,19	112	628,52	96	529,48
Arkitektura GET	59	231,58	94	525,26	100	678,4	84	618,07
Enpresa Ikasketen UE	14	52,81	68	303,01	81	384,02	67	302,22
Erizaintzako UE	8	45	37	234,56	42	287,96	36	246,9
Irakasleen UE	30	162,41	132	665,02	145	736,47	157	859,21
UE Politeknikoa	61	322,33	219	1.564,48	181	1.272,37	170	1.396,05
Industria Ing. Tek. UE	11	61,87	30	206,77	26	196,04	28	244,76
<b>Guztira</b>	<b>298</b>	<b>1.342,91 €</b>	<b>1.001</b>	<b>5.524,60 €</b>	<b>970</b>	<b>5.687,59 €</b>	<b>908</b>	<b>5.697,01</b>
<b>Bizkaiko Campusa</b>								
Zientzia eta Teknologia	84	461,04	159	917,28	196	1.341,33	171	1.137,55
Arte Ederren F.	23	132,30	83	517,68	112	822,88	83	586,54
Enpresa Zientzien F.	58	242,00	213	935,22	306	1.414,71	232	1.123,42
Gizarte Zientzien F.	86	384,77	232	1.134,19	286	1.503,73	230	1.266,45
Zuzenbide F.	20	70,78	49	215,03	66	347,6	57	284,77
Medikuntza eta Odontol	41	306,53	140	1.158,28	150	1.284,40	167	1.583,67
Ingeniaritza GET	87	454,68	265	1.519,57	289	1.895,83	241	1.675,17
Nautika GET	5	20,67	24	143,35	19	114,39	28	185,72
Enpresa Ikasketen UE	23	97,51	79	328,08	78	340,42	66	335,82
Erizaintzako UE	17	125,13	39	240,18	49	344,34	50	335,82
Irakasleen UE	61	283,48	175	875,71	231	1.246,46	196	1.088,30
Lan Harremanen UE	5	16,85	45	174,54	35	150,15	33	136,55
IITUE	68	366,88	152	971,10	192	1.345,92	139	987,67
Meatzeen eta Herri Lan	10	43,75	45	280,36	59	384,22	55	404,61
<b>Guztira</b>	<b>588</b>	<b>3.006,37</b>	<b>1.700</b>	<b>9.410,57 €</b>	<b>2.068</b>	<b>12.536,38 €</b>	<b>1.748</b>	<b>11.132,06</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.071</b>	<b>5.246,56 €</b>	<b>3.580</b>	<b>20.000,90 €</b>	<b>3.726</b>	<b>22.454,28 €</b>	<b>3.248,00 €</b>	<b>20.480,07 €</b>

## 4.- GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO UPV/EHUren JARDUERAK

### 4.1.- UNIBERTSITATE PRESTAKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA EKINTZAK

#### 4.1.1.- GRADUONDOKOAK

Graduondokoetako prestakuntza Unibertsitateak garapenerako lankidetzaren arloan duen zeregin nagusietako bat da. *Garapenerako Lankidetzaren Arloko Unibertsitateen Jokabide Kodeak*<sup>4</sup> zehazten duen moduan, Unibertsitateak giza garapenaren alde lan egiteko erantzukizuna bere gain hartu behar du, giza gaitasunen eta askatasunen hedapenaren alde eginez, horretarako giza baliabideak, baliabide intelektualak eta baliabide teknikoak bere esku baititu. Zalantzarik gabe, graduondoko prestakuntza baliabide horietako bat da.

UPV/EHUK 128 graduondoko eskaini ditu 2010/2011 ikasturtean; honela sailka ditzakegu:

- a) Garapenari eta lankidetzari buruzko ikasketak espezifikoki lantzen dituzten graduondokoak. Une honetan, UPV/EHUK master ofizial bat eta berezko hiru titulu ematen ditu arlo honetan.
- b) Nazioarteko garapen eta lankidetzaren arazoekin zerikusia duten zeharkako alderdiak lantzen dituzten graduondokoak. Une honetan, 6 ematen dira; eta horietako bi doktorego programa ofizialak dira.

#### a) Garapenerako lankidetzaren arloko graduondokoak

- **Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Arloko Graduondokoak.** Master Ofiziala. Euskal Herriko Unibertsitateko titulu ofizialen eskaintzan dago, eta HEGOA institutuaren eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV Sailen babesa du. Helburu nagusi gisa ikasleak garapenerako nazioarteko lankidetzaren alorrean profesionalki prestatzea du, erreferentzia gisa zuzentasuna, pobrezia aurkako borroka, giza garapena eta iraunkortasuna hartuta.

Master honen bidez, ikasleei kalitatezko eta diziplina anitzeko prestakuntza profesionala eman nahi diegu, garapenerako lankidetzaren esparruan errazago murgil daitezten, bai pertsonalki bai lanari dagokionez. Master honek 3 eta 6 hilabete arteko praktikak barne hartzen ditu, Europako, Latinoamerikako, Afrikako edo Asiako lankidetzaren erakundeetan edo instituzioetan egin beharrekoak. Horretarako, Euskal Herriko 30 GGKE baino gehiagoren, PNUD programaren eta UNIFEM erakundearen laguntza eta Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzaren finantziatzea dugu.

- **Nazioarteko Lankidetzaren Arloko Graduondokoak Ez Zentralizatua: Bakea eta Garapena. Agenda Globalaren Azterketa eta Kudeaketa Nazio Batuen Sistemaren Esparruan.** Berezko titulua. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailak ematen du, Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. 1997an sortu zen, goi mailako prestakuntza teoriko eta

---

<sup>4</sup> Ikusi *Garapenerako Lankidetzaren Arloko Unibertsitateen Jokabide Kodea*.

praktikoaren bidez graduondoko prestakuntza espezializatuari bultzada bat emateko ekimen gisa. Horretarako, tokiko, eskualdeko eta nazioarteko hainbat ekintza jarri ziren martxan, gazte espezializatuak nazioarteko lankidetzaz ez zentralizatuaren arloan profesional gisa sartzeari ahalbidetzeko.

Lankidetzaz hitzarmenak ditugu PNUD/RBLAC, Escuela de Desarrollo Humano, Diálogo Democrático, UNICEF, UNIFEM, FAO, UN-HABITAT, PNUMA eta UNESCO Etxea elkarrekin. Berezko titulu honek nazioarteko erakundeetan urtebeteko praktikak egitea barne hartzen du. Praktika horiek Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu.

- **Migrazioak: Migrazio Prozesuen Jakintza eta Gestioa.** Master ofiziala. UPV/EHUko Soziologia II Sailak eskaintzen du eta 2002/2003 ikasturtetik Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean ematen den Migrazioetako Unibertsitate Espezialista graduondokoa du jatorria. Masterraren helburua migrazio fenomenoari ezagutza oinarri sendoekin eta lanerako tresna erabilgarriekin aurre egiteko kalitatezko unibertsitate ikasketak eskaintzea da.
- **Garapenerako Lankidetzarako Estrategiak, Agenteak eta Politika.** Online egiteko berezko titulua. UPV/EHUren Hegoa Institutuak eskaintzen du eta bere helburua garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten pertsonen prestakuntza eta trebakuntza etengabea eta jarraitua ematea da, bai garapenerako lankidetzaren arloko gobernu kanpoko erakundeen esparruan (GGKE) bai instituzio publikoetan eta administrazio zentraletan, lurraldekoetan eta tokikoetan (gure lurraldean eta bertatik kanpo).

#### **b) Garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten zeharkako alderdi batzuk lantzen dituzten graduondokoak**

- **Globalizazioa eta Garapena.** Master ofiziala. Euskal Herriko Unibertsitateko titulu ofizialen eskaintzaren barnean dago eta Hegoa Institutuaren eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV Sailen babesa du. Bere helburu nagusia ikerketa prestakuntza eskaintzea da, globalizazio fenomenoaren eta garapen prozesuen arteko erlazioak oinarritzat hartuta, betiere, giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik.
- **Nazioarteko Ikasketak.** Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailak ematen du master eta doktorego ofizial hau, Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Nazioarteko Ikasketen master eta doktorego ofizialak 2007/2008 ikasturtean jarri ziren martxan, eta horien xedea nazioarteko ikasketen esparruko ikertzaileen prestakuntza espezializatua eta trebakuntza ahalbidetzea da. Horretarako, prestakuntza integral aurreratua eskaintzen dute, ikasleei nazioarteko ikasketen arloaren diziplina anitzeko ikuspegia emango diena, nazioarteko errealitatea aztertze eta interpretatzeko aukera ematen duten tresna kontzeptualak eta teorikoak erabiliz. Era berean, ikasleek nazioarteko gai buruzko ikerketaren esparruan lana egin ahal izateko espezializazio egokia eskuratzea nahi dugu, nazioarteko harremanen arloko espezialista taldeak sortzea sustatuz eta horiei estatuko eta nazioarteko sareetan sartzeko aukera emanez.
- **Garapenari buruzko Ikasketak.** Hegoa Institutuak eta Ekonomia Aplikatua I, Ekonomia Aplikatua IV, Soziologia I, Soziologia II eta Enpresa Zuzenbidea Sailek sustatutako doktorego programa da. Barne hartzen dituen ikerketa ildoekin zerikusia duten gaietako ikertzaileak prestatzea du helburu. Diziplina



anitzeko doktorego programa da, globalizazioaren, garapen prozesuen eta nazioarteko lankidetzaren azterketa kritikoa eta zehatza egitera bideratutakoa. Diziplina anitzeko irakaskuntza proposamen hau Europako beste herrialde batzuetan Garapen Ikasketak (Development Studies) izenez ezagutzen direnen baliokidetzat har daiteke.

Programak ikerketa ildo ugari eskaintzen ditu, hiru esparru handitan banatuta: Lankidetzaren eta Garapenerako Laguntza; Giza Garapenaren eta Iraunkortasunaren Garrantzia; eta Globalizazioa eta Nazioarteko Harreman Ekonomikoak. Programa honek garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten erakundeen gaitasunak indartzen lagunduko duten doktorego tesiak egitea ahalbidetuko die ikasleei, eta Hegoa Institutuaren eta programan parte hartzen duten sailen ikerketa jardura sustatuko du.

- **Partaidetza eta Komunitate Garapena.** Master ofizial (profesional) hau UPV/EHUko Soziologia I eta Politika Zientzia Sailek ematen dute. Masterraren azken helburua gure gizarteko demokrazia parte-hartzailea sustatzea da. Horretarako, herritarrek politika publikoen definizio demokratikoan izan dezaketen eragina sustatzeko eta prozesu guztiz parte-hartzaileak dinamizatzeko gai izango diren profesionalak prestatzera bideratuta dago. Ikasleek erabakiak hartzeko, garatzeko eta ebaluatzeko, funtzionamendua demokratizatzeko eta, bide batez, administrazio publikoen eraginkortasuna demokratizatzeko, eta gizarte eta elkarte ehundura eta, oro har, pertsonen beren existentziarekiko eta komunitate bilakaerarekiko protagonismoa sendotzeko gaitasuna eskuratuko dute.
- **Ikasketa Feministak eta Generokoak.** Master ofizial hau Antropologia Sailak koordinatzen du eta unibertsitateko hamaika sailek eta bost ikastegik eskaintzen dute. Masterrak urte askotan UPV/EHUko diziplina akademiko ezberdinetan pilatutako irakaskuntza eta ikerketa espezifikoko baliabideak biltzea ahalbidetzen du. Gizarte zientzien eta zientzia juridikoen arloko ikerketara bideratuta dago, eta bere helburu nagusia diziplina arteko prestakuntza espezializatua eskaintzea da, oinarri gisa azken hamarkadetan beste hainbat ikasketetan (Ikasketa Feministak, Genero Ikasketak eta/edo Emakumeen Ikasketak) egindako ekarpen baliotsuak hartuta. Ikasketa horiek guztiek tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan guztiz finkatuta eta garatuta dagoen esparru zientifikoa osatzen dute, diziplina eta ezagutza esparru ia guztiak barne hartzen dituen eta gizarte zientzietan presentzia handia duena.
- **Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna: Berdintasunaren Eragileak.** Berdintasun eragileak prestatzeko helburu espezifikoa duen berezko titulua. Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Sailak eskaintzen du.

#### 4.1.2.- PRACTICUMA ETA KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUAK

Practicumaren helburu nagusia unibertsitateko kideak sensibilizatzea eta lankidetzaren solidariarako jardueretan parte hartzea bultzatzea da, UPV/EHUko ikasleei karrera amaierako proiektuak garapen bidean dauden herrialdeetan egitea ahalbidetzen dieten garapenerako lankidetzaren arloko erakundeekin (GGKEak eta bestelakoak) batera lan eginez. Bereziki bi helburu espezifiko nabarmendu behar ditugu:

a) Hegoaldeko herrialdeetako garapen proiektuetan lan egin nahi duten ikasleei lankidetzaren hori beren praktika akademikoetan gauzatzeko aukera ematea. Programa honek jarduerak hauek sustatzeko laguntza ekonomikoak ematen ditu:

- A modalitatea: Garapen bidean dauden herrialdeetan **praktikak egitea, garapenerako lankidetzaren arloan**. Praktika horien helburua ikasleek prestakuntza akademikoan berenganatutako elementu teorikoak eta praktikoak erabiltzea, gizarteko errealitatea ebaluatzeko eta gizartea aldatzeko estrategiak planifikatzeko gaitasunak indartzea eta gizarte problematikak prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko aukerak lantzea da, bere prestakuntzari lotutako funtzio profesionalak abiapuntutzat hartuta.
- B modalitatea: **Karrera amaierako proiektuak egitea** garapenaren eta/edo lankidetzaren esparruan. Proiektu horietan, Ingeniaritzako eta Arkitekturako unibertsitate eskoletako eta goi eskoletako ikasleek GGKEek eta lankidetzaren erakundeek aurkeztutako “arazo teknikoak” konpontzeko asmoz ikasitakoa aplikatu beharko dute, horretarako karrera amaierako proiektua eginda.

b) UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren arloko erakundeekin duen lankidetzaren formalizatzea, ikasleek beren praktikak egiteko eta unibertsitate komunitatearentzako sensibilizazio eta prestakuntza jarduerak egiteko helburuarekin.

#### 2. TAULA. PROGRAMAREN FASEAK ETA JARDUERAK

Faseak	Jarduerak	Helburuak	Egutegia
Ikasleak eta GGKEak harremanetan jartzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Programaren berri ematea ikastegietan.</li> <li>▪ GGKEak aurkeztea ikastegietan.</li> </ul>	Programan parte hartzeko interesa izan dezaketen ikasleak eta GGKEak identifikatzea.	Apirila
Praktikak eta karrera amaierako proiektuak egiteko laguntzen deialdia	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Deialdiaren berri ematea eta erabakia hartzea.</li> <li>▪ Ikastegien eta GGKE bakoitzaren arteko hitzarmena sinatzea.</li> <li>▪ Ikastegi bakoitzeko programaren Segimendu Batzordea ezartzea.</li> </ul>	Laguntza ekonomikoak esleitzea, irizpide objektiboak oinarri gisa hartuta.	Maiatza eta ekaina
Ikasleen lankidetzaren eta prestakuntzaren GGKEetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tutoreak eta bideratzaileak izendatzea.</li> <li>▪ GGKEetan egiteko praktiken plana eta “lankidetzaren eta prestakuntzaren plana” egitea.</li> <li>▪ Lankidetzaren eta prestakuntzaren planean zehaztutako jarduerak egitea.</li> <li>▪ GGKEak ikaslearen ebaluazio txostena igortzea.</li> </ul>	Praktika egiteko ikasle proposenak hautatzea.	Urritik dagokien norakora joaten diren unera arte
Praktikak egitea, eta horien segimendua eta ebaluazioa egitea	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasleek garapen bidean dauden herrialdeetan praktikak egiten dituzte.</li> <li>▪ “Kontrako alderdiko bideratzaileak” praktiken segimendua egiten du eta hitzartutako txostenak igortzen ditu.</li> <li>▪ Hala dagokien eragileek praktiken ebaluazioa egiten dute.</li> </ul>	Praktikak gauzatea eta horien arrakasta bermatzea.	Urtarriletik irailera


Hainbat adierazleren arabera, praktika programa horiek oso emaitza onak izaten dituzte; alde batetik, parte hartzen duten ikasleen sentsibilizazioa eta jarrera solidarioa sustatzen dutelako, eta, bestetik, UPV/EHUko gero eta ikasle gehiagok mota horretako praktikekiko interesa agertzen dutelako. Martxan jarri zirenetik une honetako ediziora arte (7.a) 14 unibertsitate ikastegitako 481 ikaslek hartu dute parte programan. Ikasle horiek Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 20 herrialdeetan izan dira, eta 37 GGKEk diruz lagundutako garapen proiektuetan egin dituzte beren praktikak. Aipatu beharra dago garapen bidean dauden herrialdeetan izan diren ikasleen % 80 baino gehiago emakumezkoak direla. Era berean, edizio gehienetan parte-hartze handiena (ikasleen % 45) Irakasle ikasketetako ikasleena izan da. Beste titulazio batzuetako ikasle kopuruak ere esanguratsuak izan dira: Odontologia (% 18,1) eta Psikologia (% 17,5).

### 3. TAULA. PROGRAMAN PARTE HARTU DUTENEN BILAKAERA, GENEROAREN ARABERA

	03/04	04/05	05/06	06/07	07/08	08/09	09/10	Guztira	%
<b>Ikasleak</b>	52	57	59	108	73	67	65	481	100
<b>Emakumeak</b>	43	43	51	94	57	56	47	391	81,28
<b>Gizonak</b>	9	14	8	14	16	11	18	90	18,72


### 4. TAULA. PRAKTIKETAKO IKASLEEN PROFIL AKADEMIKOA

	03/04	04/05	05/06	06/07	07/08	08/09	09/10	Guztira	%
<b>Irakasleen UE</b>	22	25	30	54	29	30	30	220	45,74
<b>Gizarte Langintza</b>	3	5	4	7	7	6	4	36	7,5
<b>FHZF</b>	1	1		11	3	8	4	28	5,82
<b>Psikologia</b>	3	6	12	10	17	18	18	84	17,5
<b>Odontologia</b>	23	16	13	18	17			87	18,10
<b>Farmazia</b>						2		2	0,41
<b>Erizaintza</b>				2				2	0,41
<b>Zientzia eta Teknologia</b>		3						3	0,62
<b>Ingeniaritzak</b>		1		6		5		12	2,5
<b>Donostiako AGET</b>							2	2	0,41
<b>Guztira</b>	<b>52</b>	<b>57</b>	<b>59</b>	<b>108</b>	<b>73</b>	<b>67</b>	<b>65</b>	<b>481</b>	<b>100</b>



5. TAULA. PRAKTIKAK EGITEN DITUZTEN IKASLEEN HELBURUKO HERRIALDEA

	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	GUZTIRA
Argentina		2	5	7	11	8	15	48
Bolivia			2	2		8	4	16
Kamerun	2							2
Kongo						1		1
Ekvador	10	3	15	11	27	22	10	98
Etiopia						1		1
El Salvador		4	2				2	8
Ginea		1	2	2	2		1	8
Guatemala	6	13	3	11	1	1		35
Nikaragua	5	9	9	43	5	7	7	85
Honduras	24	16	13	18	17			88
India		1			5		2	8
Mexiko		1		2				3
Mozambique						5	6	11
Peru	5	3	2	3		4	4	21
Dominikar Errepublika		3	4	7	3	5		22
Ruanda						1		1
Senegal			2					2
Sahara						2	11	13
Venezuela		1		2	2	2	3	10
<b>Guztira</b>	<b>52</b>	<b>57</b>	<b>59</b>	<b>108</b>	<b>73</b>	<b>67</b>	<b>65</b>	<b>481</b>




Praktiken programak gauzatzeko herrialde gehienak Latinoamerikan daude, Asiako eta Afrikako herrialdeekiko alde handiarekin. Ekuador, Honduras eta Nikaragua dira ikasle gehien bertan hartu dituzten herrialdeak, eta, ondoren, Guatemala. Guztira, praktiketako ikasleen % 72 herrialde horietara joan dira.

#### 6. TAULA. PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN GGKEak

	03/04	04/05	05/06	06/07	07/08	08/09	09/10	GUZTIRA
1. O.P./ OSALDE	23		13	18	21			75
2. Leonekin	2	4	2	39			2	51
3. Haurralde Fundazioa	6	8	9	13	18	30	26	110
4. Ekihaizea / Ekilore Munduan	8		11	6	19	20	7	71
5. Juliaca Elkartasuna	6	12	3					21
6. FISC	1		5	4				10
7. Nazioarteko Elkartasuna	2		3				6	11
8. Intered	1	2	2	2				7
9. Denok Osasuna (DOA)				6			1	7
10. Mugarik Gabe		2	2	2	2	2		10
11. Kaleko Eskola				5				5
12. A. A. Manuel Iradier		1	2	2	2			7
13. Paz y Tercer Mundo	1			1				2
14. LERA			2	2				4
15. Medicus Mundi-Gipuzkoa			2	2	2	6		12
16. Askapena		1		2	2	2	2	9
17. SED	2							2
18. Herm. León-Zaragoza		1	1					2
20. PUSE			2					2
21. ADSIS				1	2	2	3	8
22. Alboan				1				1
23. AMAS					1			1
24. PNUD		17						17
25. Nazioarteko Elkartasuna		4			2			6
26. Paz y Solidaridad		3						3
27.GSS Pudukkottai					2			2
28. AAMI							1	1
27. ITAKA							1	1
30. NUYUN						2	11	13
31. Mundukide Fundazioa							2	2
32. ASBES							1	1
33. Paz con dignidad							1	1
34. ASF							1	1
35. ISF						2		2
36. Lagun artean						1		1
37. PTM-Mundu bat		2						2
<b>Guztira</b>	<b>52</b>	<b>57</b>	<b>59</b>	<b>108</b>	<b>73</b>	<b>67</b>	<b>65</b>	<b>481</b>

1. GRAFIKOA. PRAKTIKETAKO IKASLEEN BANAKETA, HERRIALDEEN ARABERA



Ikasleen erdiak baino gehiagok 4 GGKEekin egin dituzte beren praktikak: O.P./ OSALDE-Euskal Herria, Leonekin, Haurralde Fundazioa eta Ekilore Munduan. Osalderen kasuan, Unibertsitateak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu du elkartearekin, Odontologia ikasleek GGKE hau Hondurasen gauzatzeko ari den proiektuan laguntza eskaini dezaten. Proiektu horren helburua Santa Bárbarako komunitateko osasun sustatzaileak sendotzea da. Leonekin elkartearekin dagokionez, Unibertsitateak Nikaraguako alfabetatze kanpainari babesa emateko hitzarmen bat sinatu du. Horretarako, Irakasleen Unibertsitate Eskoletako eta Hezkuntza Zientzietako ikasleak bidaltzen ditu bertara.

Praktiken programak Eusko Jaurlaritzako Lankidetzaren Garapenerako Zuzendaritzaren eta Euskal Fonda - Lankidetzarako Euskal Tokiko Erakundearen Elkartearen finantziak jaso ditu.

Practicum programaren emaitza aipagarrien artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- a) Programa honi esker, ikasleak pobrezia-eraketan eta hegoalde-iparraldeko desberdintasun-eraketan sentsibilizatzeko helburua lortu dugu. Hala erakusten dute ikasle bakoitzak egindako praktiken txostenek eta ebaluazio jardunaldietan adierazten dutenak. Ikasleek beste kultura batzuk ezagutzeko eta horien inguruko ikasketako aukera baloratzen dute bereziki, baita oinarriko baliabide gutxiak testuinguruetan moldatzeak dakarren eronka ere.
- b) Euskal Herrira itzultzean, ikasle asko beren praktikak gauzatu zituzten komunitateekin egindako harremanei eusteko gogotsu egoten dira. Horregatik, batzuek GGKEekin lankidetzan jarraitzen dute eta beste batzuek elkartasun eta/edo lankidetzaz espazio berriak sortzen dituzte.

Horren adibide dira 7 urtez Ekuadorrean, beren praktikak kultura arteko hezkuntza elebidunera atxikitako eskola indigenetan egitera, joan diren **Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako** ikasleak. Horietako askok beren ikasketak amaitu ondoren eskola horiei laguntzen jarraitu dute, hainbat jardueraren bidez:

- 2003an, **AUSI** izeneko elkarteak sortu zuten (Nazioarteko Elkartasunerako Unibertsitate Elkarte), ondorengo ikasle promozioei Ekuadorren bizitako esperientzia transmititzeko eta horrelako praktikak egiteko motibazioa emateko helburuarekin.
- 2006an, AUSIk Ekuadorko Amazonasko eskola indigenetara eramateko informatika ekipoa eta material didaktiko ugari (20 tonako edukiontzia bat) bildu zituzten gizarte etxeetan, liburutegietan eta Arabako Foru Aldundian.
- Ikasle baten material fotografikoa erabilita, erakusketa bat egin zuten. Bertako argazkiek Amazonasko indigena komunitateen eta Ekuadorren izan diren sei ikasle promozioen irudiak biltzen zituzten. "Ekuador: una mirada solidaria" erakusketa 2006ko urriaren 24tik azaroaren 3ra egon zen ikusgai Unibertsitatearen Arabako Campusean.
